



# alta**ira**

Altabira izeneko proiektua gure ikastetxeko berrikuntza proiektu garrantzitsuena da eta, egun, gure ikastetxean gauzatu nahi dugun eraldaketa eta berrikuntza prozesuen motorra bilakatu da.

Altabira izena gure ikastetxea kokatuta dagoen auzoaren izenarekin, Altamira, jolasten du eta “bira” ideia horrek gure errealitateari buelta emateko nahia, desioa eta ilusioa biltzen ditu.

Berez, Altabira proiektua, pandemiaren testuinguruan irudikatzen hasi ginen. Hasiera batean Hezkidetzaren Proiektuan jasotako lan ildo baten garapenaren ondorioz, gure kanpo espazioa, gure patioa, hain zuzen, bizikidetzaren bermatzeko leku seguruago, humanoago eta ekitatiboagoa egiteko beharretik sortu zen. Garai horretan, gainera, pandemia dela eta, kanpo espazioen erabilerak garrantzia handia hartu zuen.

Laster, ordea, konturatu ginen proiektu horrek aukera paregabea ematen zigula gure ikastetxea eraldatzeko eta behar zuen astindua emateko eta aldaketa bi mailetan planteatzen hasi ginen. Alde batetik, ageriko aldaketa bat, gure ikastetxearen itxurarekin zer ikusirik zuena eta, bestetik, sakoneko aldaketa esanguratsua eta garrantzitsu bat, benetan egiturazkoa, gure antolaketa, funtzionamendua eta apustu pedagogikoa eta metodologikorekin, zer ikusirik duena eta hezkuntza-irakaskuntza prozesuekin lotuta dagoena. Ideia honekin, buru belarri ekin genion lanean eta horretan jarraitzen dugu gaur egun ere.

Hemendik gutxira, blog bat irekiko dugu Altabira-ren gorabeherak argitaratzeko. Adi egon!